

Usteak, Ustel!

Argitu ditzagun zalantzak...

Kultura- aniztasuna

27.

Kultura-aniztasuna

Eduardo—Ruiz Vieitez

Zergatik da garrantzitsua aniztasunaren kudeaketari heltzea?

Identitate kolektiboaren funtsezko elementu kulturalak, hala nola erlijio-tradizioa, hizkuntza edo talde etniko bateko kide izatea, pertsonen garapenerako oinarrizko faktoreak dira. Balio pertsonalen eta talde-balioen unibertsoa osatzen duten elementuak dira; oinarrizko estandarrez, soziabilitateaz eta oinarrizko eskubideez gozatzeko eta norberaren nortasuna askatasunez garatzeko faktore errealak dira, baita garrantzi handiko erreferente sinbolikoak ere.

Horregatik, **kultura-aniztasuna politikaren ikuspegitik garrantzitsua da**, edozein dela ere haren jatorria edo kausa. Ulertu behar dugu haren kudeaketa funtsezko eta beharrezko politika dela giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte demokratiko batentzat. Desberdintasunak behar bezala administratzea da, ziurrenik, formalki demokratikoak diren gizarteetan XXI. menderako politikaren erronkarik handiena.

Immigrazioa eta kultura-aniztasuna baliokideak al dira?

Ez. **Immigrazio orok ez du zertan aniztasun gehiago sortu harrera-gizartean, eta aniztasun guztia ez dator oraintsuko immigraziotik**. Ohikoena ez bada ere, migrazio-fluxuek gizarte jakin baten aniztasuna murriztu dezakete, eta gizarte horretan lehendik bizi ziren **akulturazio-prozesuak** indartu ditzakete.

Egia da euskal gizartean, azken 20 urteotan, immigrazio-prozesu oso handiak bizi izan ditugula, guretzat ezezagunak zirenak. Eta horri esker, ohituta ez gunden aniztasun berri bat sendotu da. Hala ere, argi izan behar dugu, berez, immigrazioa, herrialdeen arteko mugimendu gisa, muga gurutzatzen denean amaitzen dela; edo etorkina, xede herrialdean denbora batez geratzeko asmoz, lehen aldiz bizitzen hasten denean, nahiz eta bizitzen haste hori oso prekariora izan hasieran. Kudeaketa publikoaren ikuspegitik, **beste herrialde batetik datorren pertsonak Euskadin geratzea eta bere bizi-proiektua garatzea** (edo garatzen saiatzea, behintzat) **erabakitzen badu, pertsona hori euskal herritar gisa hartu behar da**, bere presentziarekin, lanarekin (edo lanerako duen prestasunarekin) edo diruarekin laguntzen duen herritar gisa (pertsona guztiek zeharkako zergak ordaintzen dituzte, jarduera ekonomikorik gauzatzeko ez badute ere). Nahi izanez gero, herritar berritza har ditzakegu, jakitun izanik «berria» adjektiboa behin-behinekoa edo iragankorra izango dela beti, eta zaharkituta geratuko dela lehenago edo beranduago.

Gizarte demokratiko eta moderno batean, bidegabekia eta politikoki desegokia da etengabe etorkinei eta bertakoei buruz hitz egitea. Lurralde honetan gizarte bera partekatzen dugun pertsonak bizi gara, denbora gehiago edo gutxiago daramagu bertan, eta, askotan, ez dakigu zenbat denbora geratuko garen lurralde horretan. Denok gara gizarte bereko herritarrak, goizero gizarte horren parte bezala jaikitzen garelako.

Politika publikoak immigraziotik bideratzeak, aniztasunetik edo herritartasunetik bideratu beharrean, galbideratu egiten ditu politika horiek; izan ere, «etorkina» (baita «bigarren edo hirugarren belaunaldiko etorkinak») deiturikoak ere, adierazpen eufemistikoa, esanahi kontraesankorra duena) diskriminazioaren edo eskubideak urratzearen subjektu potentziala da beti. **Eskubideei eta betebeharrei buruz hitz egiteko beharrezkoa da, abiapuntu gisa, gizarte batean bizi eta lan egiten duen pertsona oren herritartasuna onartzea.** Horregatik, garrantzitsuena herritar horien kultura-aniztasunaren kudeaketa publikoa da, migrazio-prozesuen ondorio izan diren ala ez kontuan hartu gabe.

Kultura-aniztasuna berria al da?

Ez. Aniztasun kulturala, linguistikoa, etnikoa, erlijiosoa, nazionala edo identitate-aniztasuna ez dira fenomeno berriak. **Europako gizarte guztiek aniztasun-maila desberdinak izan dituzte beti.** Aldi berean, nazio-estatuak, batez ere XXI. mendetik aurrera, kultura- eta identitate-homogeneizazio nabarmena lortu dute beren baitan. Baina, historikoki, ohikoena desberdinen arteko bizikidetzaren izatea da, edo desberdinak auzokide izatea, baita biztanleria-mugimenduak ere. Gizarte itxiak, talde desberdinekin harremanik izan ez dutenak, mugikortasunik edo barne-aniztasunik gabekoak, zalantzarik gabe, salbuespena izan dira, eta desagertzera kondenatutako garapenak izan dituzte.

Argi dago gure artean berriki izan diren biztanleria-mugimenduek areagotu egin dutela, oro har, lehendik zegoen aniztasun-sentsazioa. Zenbait alderditan, aspaldi gertatu ez diren aniztasun-egoerak sortu dituzte. **Baina hizkuntza, erlijio edo kultura desberdinen arteko bizikidetzaren fenomenoak gizartea bera bezain zaharrak dira, eta edozein herrialde aske berezkoak ditu.** Euskal lurraldeek ere, historian zehar (urrunekoan edo duela gutxikoan), etengabe-ko aniztasuna izan dute erlijioari, hizkuntzari, partaidetza-sentimenduei, talde etnikoei edo jatorriei dagokienez.

Zergatik da garrantzitsua kultura-aniztasuna kudeaketa publikorako?

Giza eskubideak errespetatzen dituen esparru bat sortzeko ezinbestekoa delako norbanakoen eta taldeen kultura-identitatea kontuan hartzea, bereziki norbanako eta talde horiek gutxiengoa badira. Identitate kolektiboak definitzen dituzten elementuak (erlijioa, hizkuntza, kultura...) pertsona ororen nortasuna garatzeko oinarritzko faktoreak dira. Integrazio pertsonalerako faktore errealak izateaz gain, garrantzi handiko erreferente sinbolikoak ere badira, eta, beraz, espazio publikoan duten presentzia eraginkorrek garrantzi handia du horiek partekatzen dituzten norbanakoentzat (elementu gutxi edo asko partekatzen dituzten edo pertsona askok edo gutxik partekatzen dituzten kontuan hartu gabe).

Oinarri kulturalako identitatea funtsezko erreferentea da gizakiarentzat, arrazoi simple batengatik: ez dago identitate kulturalik, nazionalik edo linguistikorik gabeko gizakirik; generorik, adinik edo izenik gabeko gizakirik ez dagoen bezalaxe. Ezin da kultura-identitateen gaitetik egon; izan ere, **gizakia soziala eta kultura-la da, taldeekin eta talde horien erreferentziekin integratu eta identifikatzen da, jaiotzatik heriotzara arte.** Guztiok behar ditugu eta erabiltzen ditugu, gure eguneroko bizitza publikoaren eta pribatuaren edozein une eta adierazpenetan.

Zerdira kultura-oinarria duten talde-identitateak?

Koloreekin, erlijioekin edo adinekin gerta daitekeen bezala, **ukaezina da kulturak existitzen direla eta elkarren artean bereizten direla, baina ez da erraza ez modu kontzeptualean definitzea, ez bata bestearengatik bereizten duen muga zehatza markatzea**. Hala, oso zaila da identitate kolektiboak definitzea, eta, hala ere, guztiok egiazta dezakegu existitzen direla; gizaki bat bera ere ez da bizi intentsitate desberdineko identitaterik edo lotura kulturalik gabe. Identitate horiek ondorio ukaezinak dituzte gure komunitate politikoa edo besteena ulertzeko dugun moduan. Are gehiago, gai horietako edozeini buruz argumetatzen dugunean, gure identitateak (konplexutasun-maila handiagokoa edo txikiagokoa izan) baldintzatzen gaituela esan dezakegu.

Identitateek giza talde batekiko (benetakoa edo irudizkoa) kidesun-sentimenduak adierazten dituzte, talde horiek elementu bat edo batzuk komunean (gehiago edo gutxiago) izateagatik bereizten dira. Baina, aldi berean, prozesu hori gero eta konplexuagoa da; izan ere, azaleratzen ari diren errealitateek elementu batzuen eta besteen arteko harremanak biderkatzen dituzte, eta, ondorioz, koordinatu berriak sortzen dira elementu horien aldaera sorta amai-gabeen. Nolanahi ere, **identitateak konparazioaren bidez definitzen dira, eta, gaur egungo globalizazio-prozesuan, konparazio horiek identitate batzuk sortu eta indartzen dituzte, eta beste batzuk ahuldu edo ezkutatu**. Baina kultura-identitateak (hizkuntzaren, erlijioaren, bizimoduaren edo ikasitako balioren bidez eraikiak) edo nazio-identitatea izateak ez du esan nahi identitate horiek estatikoak edo finakoak direnik, eta, era berean, ez dago kultura-errealitate aldaezinik edo etengabe eboluzionatzeko gai ez denik. Baina, identitateak eta horien definizioak konplexuak eta aldakorak izateak ez du esan nahi existitzen ez direnik edo gizarte-bizitzan duten garrantzi izugarria hedatzen ez denik; garrantzi hori areagotu egiten da horiei buruzko tentsioak edo eztabaidak sortzen direnean.

Zer da kultura bat?

Identitate kolektiboa artikulatzen duten oinarrizko kultura-elementuak eztabai-dagarriak eta interpretagarriak dira beti. Praktikan, ez dugu hizkuntza edo erlijio bati buruzko ahobatezko definiziorik edo adostasun unibertsalik aurkituko, ez eta nazio, gutxiengo nazional edo kultura terminoak definitzeko ere. Baina, aldi berean, **badakigu kultura-identitateak existitzen direla** eta halako elementuetan oinarritzen direla, **eta gure sentimenduak, ondasunak eta errealitatearen ikuspegia baldintzatzen dituzte.**

Kultura, definizioz, kontzeptu higikor, aldakor eta ebolutiboa da. Tematzen bagara ere, ez gara gai izango kulturen behin betiko zerrenda bat aurkitzeko. Ezin izango diogu pertsona bakoitzari aurrez zehaztutako kultura bat edo gehiago zehatz-mehatz esleitu, arrazoi sinple batengatik: kulturak aldatu egiten dira, eta, aldi berean, pertsonen identitatea ere aldatu egiten da (gehiago edo gutxiago). Bi pertsonak, ama-alabak adibidez, hizkuntza bera hitz egiten dutela esaten dugunean, berez, sinplifikatzen ari gara ez dutela zehazki hizkuntza bera hitz egiten, nahiz eta bistan den hizkuntza komunak lotura afektiboa eta partaidetza-lotura sortzen diela. Egia esan, pertsona berak ere ez du hizkuntza bera hitz egiten bizitzan zehar, aldatu eta egokitu egiten baitu ingurunearen eta bere buruaren bilakaeraren arabera. Hala ere, izen bera erabiltzen dugu hizkuntza hori definitzeko, identitate-loturak sortzeko oinarri den kultura-kategoria baita. Prozesu bera gertatzen da sinesmen edo tradizio erlijiosoekin, ondasun nazional edo etnikoekin, edo oinarri kulturalako edozein identitaterekin.

Bestalde, kulturak definitzea edo kategorizatzea konparaziozko ariketa bateko eskala-kontua ere bada. Kultura-faktore jakin batekiko identifikazioaren intentsitatea desberdina izan daiteke, eta hori non eta noren aurrean aurkitzen garearen arabera da. Hau da, hiri, eskualde edo nazio batekiko identifikazioa ez da berdina izango lurralde-kokapenetik milaka kilometrotara aurkitzen bagara edo bertan bagaude; hala, identitatea areagotu egiten da lurraldeen eskala txikiagoetan, argazki-kamera baten zoomean gertatzen den bezala.

Prozesu bera ikus daiteke identitate kolektibo baten oinarri den beste edozein kultura-elementutan. Identitate-aniztasuna, definizioz, erlatiboa da beti, haren intentsitate handiagoa edo txikiagoa konparazio kontua besterik ez baita, eskala kontua. Berez, giza ariketa bat da, berdinen eta desberdinen interpretazio bat, une historiko bakoitzean (eta toki bakoitzean) «**gu-haiek**» binomioaren elaborazio-jolas bat.

Baztergarria al da identitateak bereiztea?

Ez. Aitzitik, beharrezkoa da diskriminaziorik ez egiteko. **Kultura- eta identitate-errealitateak kontuan ez izateak giza eskubideei eta herritarren nortasunaren garapen askeari eragin diezaiekete.**

Egia da «gu-haiek» dikotomiak irudi txarra duela egungo diskurtso politikoki zuzenetan. Baina, gauza gutxi daude bereizketa hori baino naturalagoak edo berezkoagoak direnak gizakiarentzat. Gutarren eta bestetarren artean, identitate-elementu jakin batzuk partekatzen ditugunon eta partekatzen ez dituztenen artean bereiztea giza errealitatearen ikuspegi logikoa da, eta beharrezkoa, desberdintasunak daudela abiapuntu gisa hartzen badugu. Izan ere, kultura- eta identitate-desberdintasunak baldin badaude (eta existitzen direla ebidentzia bat da), horren ondorioz nahitaez identitate bera dutenen eta identitate horretatik kanpo daudenen arteko bereizketa egin dezakegu, identitate batzuen eta besteen artekoa, kulturen artekoa, hizkuntzen edo erlijioen artekoa.

Dikotomia hori ukatzea gizakiaren errealitatea ukatzea baino ez da, gaur egungo garapen eta eboluzio fasean behintzat. **Gure eta haien arteko desberdintasunak ez du berez balorazio-osagairik**, eta antolatu beharreko errealitatearen isla da. Familiak berak, naturala nahi izanez gero, hasiera ematen dio gutarren eta bestetarren arteko kategorizazioari, kasu bakoitzean bereizketa egiteko garrantzitsua iruditzen zaigun ahaidetasun-mailaren arabera.

Era berean, genero-desberdintasunak edo sexu-orientazio desberdinak daude, eta horiek ere gu eta haiek batean kokatzen gaituzte; edo adin-desberdintasunek bereizten gaituzten modu berean, adin txikikotzat jotzen ditugunak edozein partaidetza-eskubidez gabetzen ditugu, hain irizpide arbitrario (adin jakin bat betetzea, pertsona guztiek heldutasuna adin berean lortuko balute bezala) eta ziur aski saihestezinaren bidez. Logikoa da, beraz, gure eta haien arteko bereizketa egitea hizkuntza desberdinak hitz egiten ditugunean, erlijio edo bizitza-filosofia desberdinak praktikatzen ditugunean, edo nazio edo kultura desberdinen parte sentitzen garenean. **Elementu horiek, hala nola baldintza sozial eta ekonomikoak, ondorio garrantzitsuak izan ditzakete, eta kon-tuan izan behar dira hainbat esparrutako politika publikoak formulatzean.**

Gu eta haiek bereizteak ez dakar baloraziorik. Gauza bat da aldarrikatzea, eskubi-deen adierazpenek egiten duten bezala, denok aske eta berdin jaiotzen garela (eta hori beti balorazioa dakarren fikzio bat da, desberdintasun faktiko ugarirekin jaiotzen baikara), eta beste bat kulturalki eta identitatez berdinak izatea. Hain zuzen ere, hori ez delako horrela, beharrezkoa da taldeak bereiztea, norbanako bakoitzaren alderdi kolektiboak onartzea eta behar duten aitortza ematea. Izan ere, pertsona bakoitzaren duintasunari eragiten diote, eta haien garapenaren eta gizarteratzearen parte dira eta izango dira.

Aitzitik, balorazio bat egitea litzateke «gu-haiek» banaketa kategoria hauekin lotzea: zintzoak-gaiztoak, zibilizatuak-basatiak, garatuak-atzeratuak, irekiak-itxiak, demokratikoak-autoritarioak, liberalak-ez liberalak, kosmopolitak-tribalak, etab. **Geure giza esentzian askeak eta berdinak jaiotzen garela onartzen badugu, zergatik ez dugu onartzen kultura-elementuak ere berdinak eta askatasun beraren ondorio izan daitezkeela?** Kultura-elementuak gizakiak sortuak dira, izatekotan. Hizkuntzak, erlijioak, bizitza-filosofiak, kultura-parametroak edo identitate kolektiboak giza eraikuntzaren emaitza gisa sortzen dira, eta gutako bakoitzaren zati dira, kasu bakoitzean dagokion proportzioan eta mailan, normalean gurekin zerikusirik ez duten faktoreengatik: familia, geografia, gizartea, historia, hizkuntza, kultura, erlijioa, estatua, hezkuntza, etab.

Balio partekaturik ba al dago gizartean?

Termino generikoetan gizarte bat aipatzen denean, kultura-aniztasuna ez da behar bezain beste kontuan hartzen, eta gehiengoaren gizartea datorkigu burura, identitate- eta kultura-elementu hedatuenekin edo nagusiekin. Gutxiengoa diren beste kolektiboak integratzeko ezartzen den nahiaezko erreferentziak ez du hartzen oinarri bezala herritar guztiek osatzen duten taldea, baizik eta gailentzen den taldea hartzen du, komunitate politikoarekin nahasten dena, oro har. Beraz, **balio partekatuez hitz egiten denean, eremu politiko horretako talde nagusi, titular edo menderatzailearen balioez baino ez gara ari.**

Baina, **gizarte oro plurala eta askotarikoa da; hain zuzen ere, bertan etorkinak** (duela gutxi edo aspaldian etorritakoak) **eta gehiengoak ez bezalako identitate-ikurrak dituzten pertsonak daudelako.** Talde horien guztien kultura-elementuak «gizartea» ideari gehituz soilik uler dezakegu egokiro gizartearen ideia hori, eta orduan aztertu ahal izango dugu zenbateraino egon daitezkeen benetan partekatutako balioak.

Baina eremu politiko jakin batean (normalean, estatu batean) nagusi den gehiengo hori soilik aztertzen badugu ere, berehala konturatuko gara gehiengo hori ez dela inoiz guztiz homogenea, eta nahiz eta kultura-elementu batzuk partekatu, zaila izango da kide guztiek aho batez balioak partekatzea. **Errealitateak erakusten du kulturalki nagusi diren taldeak ere konplexuak eta pluralak direla,** batez ere balioei eta jarrerrei dagokienez. Oso eremu gutxitan imajina daiteke benetako «harrera-gizarte» homogenea; beraz, ez da bideragarria «haiei» (gutxiengoak, aspaldikoak edo berriak) integrazio bat eskatzea, «guk» garrantzi handiko gaiei buruzko (moralak edo etikoak) ideia partekaturik ez dugunean (esate baterako, pentsatu kultura-komunitate bereko kideen artean abortua, eutanasia, kolektibo jakin batzuen berdintasuna, erlijioaren kontsiderazio negatibo edo positiboa eta antzeko gaiak eztabaidatzea).

Irits al gaitezke komunitate politiko homogeneoak eraikitzaera?

Ezin dugu, ezta behar ere. Kulturalki homogeneoak diren gizarteak eratzea bideraezina eta anakronikoa da. Kultura- eta identitate-desberdintasunak, gaur egun, gizarte-panoramaren ezinbesteko alderdiak dira, eta, beraz, **kultura-aniztasuna politika publikoen behin betiko oinarri bihurtu da.**

Bestalde, helburu hori testuinguru autoritario batean baino ez litzateke posible izango. **Aniztasuna askatasunaren emaitza da. Askatasunak giza adierazpen desberdinak sortzea ahalbidetzen du.** Homogeneotasuna pertsonen sorkuntzan edo sinesmenean askatasun-marjina bat errespetatzen ez duen irizpideen inposaketaren eta bakoiztasunaren ondorio da. Kultura-homogeneotasuna bateraezina litzateke ideologia liberal nagusiarekin eta gure garaiko diskurtso politikoki zuzenekin.

«Gu-haiek» dikotomia naturala da gizarte-funtzionamenduan, eta halaxe ulertu behar da. Arazoa aipatutako binomioarekin batera balorazio-osagaien bat agertzen denean hasten da, edo komunitate politikoaren antolakuntzara eramaten denean; hau da, «*gu-herritarrok*» «*gu-gehiengoa*»rekin nahasten denean. Hori bereziki nabaria da etorkinen gizarteratzeari dagokionez. Etorkina kanpotar iritsi berri gisa hartzen denez, herritar berri gisa hartu beharrean, integrazioaz hitz egiten denean, diskurtso estetiko hutsetik harago, berez, prozesu desorekatu batez ari gara. Iritsi direnak dira, beranduago etorri direnak, gutxiengoa, «integratu» behar dutenak. Gehiengoa osatzen dutenak, ordea, integratutzat hartzen dira, eta ez zaie erantzukizun handiagorik ematen desberdin direnen presentzia onartzea baino, behar bezala «integratzen» diren heinean.

Logika bera aplikatzen da gutxiengo diren beste kolektibo batzuetan, hala nola gutxiengo linguistiko, erlijioso edo etnikoetan, nahiz eta ez izan duela gutxi iritsitakoak. Ildo horretan, pentsa dezagun ijitoen edo erromanien aurrean gehiengoak duen jarreran. Ikuspegi horretatik, **«integrazioa» ez da norabide biko prozesu gisa ulertzen, zentzu bakarreko bide gisa baizik**. Bide horren helburua, ustez, «harrera-gizartea» da, eta, gainera, demokratikoa denez, gizarte-integrazio horren parametroa ezartzen du. Logika horren atzean, askatasunarekin eta berdintasunarekin bateraezina den gizarte homogeen bat eraikitzeo ideia dago.

Zer dira estatuak identitate kolektiboentzat?

Politikaren edo ekonomiaren ikuspegitik, estatuak beren botere tradizionalaren gainbehera jasaten ari diren arren, identitate-faktorearen ikuspegitik, gaur egun estatua historian izan den garairik indartsuena bizitzen ari da. **Estatuak iragazkiak dira, gaur egun pertsonen identitatea kokatzeko dagoen ia iragazki bakarra**. Guztiok hain barneratuta daukagu estatuen banaketa, ezen ez baitugu zalantzarik pertsonak identifikatzeko elementu gisa erabiltzeko, beste edozein faktorearen gainetik. **Atzerritarrekin** (gure estatuak ez direnak) **topo egiten badugu, haien identitatea beren estatuarekin katalogatuko dugu**, eta estatu horri buruz buruan ditugun estereotipoekin lotuko ditugu, asko, gutxi edo batere ez dakigun kontuan hartu gabe.

Gaur egun, estatua identitate-iragazki gisa erabiltzea oso unibertsala eta automatikoa da. Egun, planetako pertsona guztiak identifika daitezke estatu independenteen zerrenda baten bidez. Pertsona batek ibilbide familiar edo pertsonal mistoa edo konplexua badu, beti esan ahal izango dugu bi estatu edo gehiagotakoa dela, baina erakunde politiko independenteen izenak erabiltzen jarraituko dugu. Online inprimaki bat datu pertsonalekin bete behar badugu, ziurrenik, «herrialdea» dioen eremuak aukera mugatuak izango dituen menu bat zabalduko du, eta bat aukeratu beharko dugu; menu horretan, planetan aitortutako estatuen zerrenda agertuko da, eta ez beste erreferentzia geografiko, nazional edo etnikorik.

Baina estatuak, pertsonak ez ezik, jarduteko esparrua, lurraldea eta gizarte gisa bizi diren pertsonak ere identifikatzen ditu; hau da, jarduketa publikorako espazioa. **Gizarte bati buruz hitz egin ohi dugunean, estatua da erreferentzia-esparrua, nahiz eta gizarte hori kultura anitzekoa izan. Eta, beraz, mugak jartzen dizkiogu gure hausnarketari, eta aniztasun horren eremu geografikoa eta pertsonala mugatzen dugu.** Estatuko gizartea eskubideak aitortu eta egikaritzeko esparrua ere bada, bere baitan nagusi diren kultura-parametroen arabera. Estatuko mugek giza eskubideen kudeaketan desberdintasunak legitimatzen jarraitzen dute, baina teorian ez luke horrela izan behar, unibertsalak baitira. Berez, **oso inkoherentea da ekonomia, politika edo osasun arrazoiengatik ixten diren hesi edo lerroekin mugatzea eskubide unibertsalak baliatzeko moduak, gizarteratzearen ideia edo gizartearen kontzeptua bera**, hesi horien bi aldeetan giza beharrak erabat desberdinak balira bezala. Horrek berretsi baino ez du egiten estatuak gehiengo kulturalen mugaketak direla, beren baitan identitate-ikuskerak jakin bat menderatzen eta inposatzen dutenak.

Gizarte batek kultura-elementu komunak behar al ditu gizarte kohesionatua izateko?

Kultura- eta identitate-homogeneotasuna desiragarria eta komenigarria delako ideiatik abiatuta eraiki dira estatuetakoz gizarteak. **Ideia horrek defendatzen du gizarte orok herritar guztiek partekatutako elementuak izan behar dituela**, hala nola hizkuntza bat, balio batzuk, kultura bat, identitate- edo kidesun-sinbolo edo -sentimendu batzuk. Ikuspegi horren arabera, harmonia soziala eta estatuaren eraginkortasuna lortzea ahalik eta pertsona gehienek horrelako elementuak partekatzearen baitan dago. Beharrezkotzat jotzen den homogeneotasun horrek muga jakin batzuen barruan eragiten du, eta muga horiek ia beti estatu batenak izan ohi dira.

Hala ere, estatu bideragarri, egonkor eta kohesionatuak egon daitezke, eta ez dute nahitaez kultura-elementu partekaturik izan behar. Suitzak, adibidez, ez dauka hizkuntza edo erlijio-tradizio komun bat, eta, hala ere, berezko identitate-maila handia duen gizarte bat da. Gizarte-praktikan ez dago gizarte bereko herritar guztiekin partekatu beharreko identitate-elementurik (hizkuntza, erlijioa, etab.). Funtsean, uste da bideraezina edo desererosoa dela aniztasun handiko espazio batean bizitzea; baina, eguneroko errealitatean, eta gero eta gehiago teknologia berriei esker, erakundeek ez dituzte elementu horiek behar egokiro funtzionatzeko, ezta herritar bakoitzak nahi duen bizitza soziala garatu ahal izateko ere. Kultura eta identitate homogeneoaren beharra estatu nazional tradizionalaren beharra baino ez da, bere burua sendotzeko eta iraunarazteko. **Kulturalki pluralak diren gizarteetan egin daiteke kudeaketa politikoa, eta horrek ez du zertan mugatu edo eragotzi behar gizarte bateko erakunde publikoen eta pribatuen funtzionamendu egokia.**

Nola egokitu dezakegu gure sistema politiko eta juridikoa egoera berrira?

Demokrazia ez da gehiengoaren tirania, pertsona guztien giza eskubideak errespetatzea baizik. Eta guztiontzat berdinak diren eskubide horiek pertsona orok erabili ahal izan behar ditu, edozein dela ere haren identitatea. Horretarako, beste alderdi sozial edo ekonomiko batzuetan gertatzen den bezala, kulturen arloan ere, **aparatu publikoak komunitatearen izenean esku hartu behar du desorekak eta bidegabekeriak zuzentzeko, eta guztiei garapen-aukera berdinak emateko.**

Helburua ez da edozein motatako gutxiengoek edo etorkinek eskubide be-reziak izatea defendatzea, baizik eta, alderantziz, guztiontzat berdinak diren eskubideak baliatzerako orduan, kolektibo horien desberdintasunak barne-ratzea. Giza eskubideen zerrenda berdina da guztiontzat; izan ere, eskubide unibertsalak dira, baina beharrezkoa da eskubide horien erabilera dauden identitate desberdinetara egokitzea.

Gizarte kulturantzun orok giza eskubideen irakurketa kulturantzuna egin behar du haiei buruzko legeak egiteko, aplikatzeko eta gizarte-gatazkak epaitzeko orduan. Kontua ez da eskubide berriak edo pribilegioak sortzea talde jakin batzuentzat, baizik eta arauak, politikak eta interpretazio-parametroak egokitzea. Horretarako, kontuan hartu behar da hizkuntza, erlijio, etnia edo sentimendu nazional desberdinak daudela. Horretan datza berdintasunaren eskubidea eta bereizkeria ezaren printzipioa bere esanahi osoan aplikatzea. Bereizkeriaren aurrean berdintasunerako eskubidea dagoen bezala, desberdintzapenerako eskubidea ere badago (tratu bereizia) uniformetasunaren aurrean.

Horrek bultzatu behar gaitu arauak modu zabal eta pluralagoan idaztera eta modu berean aplikatzera. Ordutegiak luzatzea edo bereiztea, espazio fisikoak partekatzea edo egokitzea, arau jakin batzuetan justifikatutako salbuespen kopuru handiagoa ahalbidetzea, talde jakin batzuentzako afekzio larriak konpentsatzea, herritarrek eta horiek sortzen dituzten taldeek herrialdeko bizitza sozial, kultural, ekonomiko eta politikoa benetan parte hartzea, elikadurari, seinaleztapenari, janzkerari, jai publikoei, erritu edo ospakizun sozialei, hezkuntza-prozesuei eta abarri buruzko irizpideak zabaltzea, etab. Horrela, gero eta herritar gehiago sentituko dira eroso gizarte berean.

Zer lortzen dugu gure politikak kulturarteko ikuspegiaren bidez eraldatuz gero?

Batez ere, herrialde modernoagoa, aurreratuagoa, kohesionatuagoa, bake-tsuagoa eta lehiakorragoa lortuko dugu. Laburbilduz, **onura zuzen edo zeharkako gehiago, espazio geografiko eta politiko berdina partekatzen dugun guztiontzat**. Helburua da herritar bakar batek ere ez diezaiola bere identitateari uko egin gizarte honetan parte hartzerako eta bere eskubide guztiez gozatzerako orduan. Horrek ekarpen handiagoa bermatzen du, giza baliabideen eta gizarte-baliabideen aprobetxamendu handiagoa, eta etorkizuneko gatazka- edo tentsio-egoerak saihestea (horrek dakarren gainkostu sozial eta ekonomikoarekin).

Demokratikoki pluralizatzeak eskubideak pluralizatzea esan nahi du, horien irakurketa eta interpretazioa, bai eta eskubide horiek bermatzeaz arduratzen diren erakunde publikoak pluralizatzea ere. **Aniztasuna kudeatzeko eredu ireki eta demokratiko bat pentsatzeak, definitzeak eta planifikatzeak, ondorio bezala, komunitate politikoaren ikuspegi berri bat dakar, haren oinarrizko bizikidetzara-arauekin**. Molde zurrin eta dogmatikoak ekidin eta jarraibide malguagoak eta moldagarriagoak diseinatu behar dira, aukera gehiagotara egokitzen direnak eta aniztasunetik eraikitzen direnak.

Parametro horietan oinarritutako gizarteak ez gaitu behartzen norberaren identitatea galtzera edo hari uko egitera, ezta gutxiago ere. **Aniztasun demokratikoak identitate bakar batentzat den espazio publikoari uko egitea dakar, baina horrek ez du esan nahi, inola ere, eremuko identitate nagusiari uko egin behar zaionik.** Aniztasuna ez da batura zeroko joko bat, ezta identitateen arteko borroka bat ere. Izaera berriak integratu eta onartzen direnean, ez da beharrezkoa beste batzuk ezabatzea edo deskalkifikatzea. Aitzitik, adierazpen-aukerak zabaldu ahala, haien arteko harremanak handitu egiten dira eta, pixkanaka, gizarte horren panorama eraldatuko duten kultura-elementu eta identitate berriak sortzen dira. Gaur egun, **gizarte lehiakorrenak, aberatsenak eta aurreratuenak ez dira gizarte homogeenak, ezta aniztasuna modu negatiboan edo gatazkatsuan bizi dutenak ere; aitzitik, anitzak eta askotarikoak diren gizarteak dira.** Hain zuzen ere, aniztasunaren ondorioz, askotariko baliabideak eta ahalmenak dituzte, eta aniztasun hori, sozialki eta ekonomikoki, modu positiboan eta errentagarrian kudeatzen jakin dute.

Aniztasuna arazo bat al da kudeaketa politikorako?

Gaur egungo diskurtso sozial eta politiko gehienek argi eta garbi erakusten dute aniztasuna kudeaketa publikorako oztopo edo arazo bat dela. Oztopo horrek denbora galtzera behartzen gaitu nola antolatu behar garen pentsatzeko, eta gatazkak eta betiereko nahigabeak sortzen ditu. Europako gizarteak, oro har, desiragarriena identitate-elementuak partekatzea dela ideia oinarri izanda eraiki dira. Horren arabera, zenbat eta handiagoa izan kultura-aniztasuna, orduan eta zailagoa izango litzateke gizarte-kohesioa lortzea. Itxuraz sinplea eta sinesgarria den pentsatzeko modu horren atzean, berez, aniztasunaren edo, hobeto esanda, beste kultura edo identitateen ikuspegi negatiboa dago.

Historiaren azterketak erakusten du, ordea, **gutxieneko bizikidetzaren harmoniatsua lortzen duten gizarte anitzek moldakortasun eta malgutasun handiagoa dutela, eta, horri esker, ingurune politiko eta sozioekonomiko aldakorretara egokitze aukera handiagoak dituzte.** Gainera, gizarte pluralak lehiakorragoak dira, lanpostu baterako pertsona eleaniztun bat pertsona elebakar bat baino lehiakorrago den bezala.

Aniztasunak tratu berezien eta etengabe birdefinitutako oreken doikuntzak, egokitzapenak eta moldaketak ekarriko ditu; baina hori guztia ez da izango energia galera hutsa, gizarteari ahalmen handiagoak emango dizkion inbertsioa baizik. Horregatik, kudeaketa publikorako benetako arazoa gizarte homogeen bat gobernatu behar izatea izango litzateke, non aniztasun-dosiak handitu beharko bailirateke, horrek dakarren zailtasunarekin (atzerriko hizkuntza bat irakastea, adibidez ingelesa, askoz zailagoa da pertsona elebakarren gizarte batean, eta ahalegin handiagoa eskatzen du; aldiz, errazagoa da erabilera-erregistro desberdinak eta hainbat hizkuntza hitz egin eta erabiltzen dituzten gizarte baten pertsoneri irakastea). **Aniztasuna ez da kudeatu beharreko arazoa, baizik eta modu desberdin, ireki, moldagarri, lehiakor eta eraginkorrago batean gobernatzeko elementu faktikoa.**

Garestia al da aniztasunaren kudeaketa demokratikoa?

Pertsona batzuentzat, aniztasuna ez kudeatzeak aurrezki ekonomiko nabarmena dakar; izan ere, alderdi horretan ez gatzatzeak politika publikoen beste eremu batzuetan erabiltzeko baliabideak uzten ditu. Baina, aniztasuna gure gizartearen errealitate iraunkor eta behin betikoa da, eta, hura ez kudeatzearen ondorioz, herritarren lan-gaitasunak gutxiago aprobetxatzen dira, aniztasunak berezkoak dituen jarduera ekonomiko jakin batzuk ez dira aprobetxatzen (eta horiek, aldi berean, diru-sarrera publikoak sortzen dituzte), hezkuntza-porrota gertatzen da, eta gizarte-gatazka gehiago sortzen dira. Ondorio horiek, epe ertain eta luzera, aurrezki nahi diren baliabide ekonomikoek baino kostu handiagoak eragingo dituzte.

Kudeaketa publikoko beste hainbat eremutan bezala, **kultura-aniztasunaren kudeaketak dakartzan kostuak inbertsio bezala ulertu behar dira, eta ez gastu bezala**. Gizarte-ahalmen handiagoan, etorkizuneko gatazka gutxiagoan eta giza baliabide propioen lehiakortasun handiagoan inbertitzea da helburua. Adibidez, hezkuntza eleaniztunaren ondoriozko gastu erantsiak, zalantzarik gabe, konpentsatu egiten dira, gizarte eleaniztunetako ikasleak hizkuntza bakarrean eskolatzen direnean gertatzen diren errepikapenen eta eskola-porrotren kostu handiak ekiditea lortzen baita. Hezkuntza eleaniztunak ikasleek hizkuntza-trebetasun handiagoak lortzea erraztuko du, eta, ondorioz, etorkizunean lehiakortasun profesional handiagoa izango dute. Horrek, era berean, egoera ekonomiko berrien aurrean, herrialdeak berak aukera handiagoak izatea ekarriko du. Azken finean, kultura-askatasunaren sustapena eta babesa ez dira kostu erantsi gisa ulertu behar, etorkizuneko inbertsio erreal gisa baizik, lehiakortasun-maila handiagoak eta gizarte-kohesioa bermatzeko. Epe laburreko ikuspegitik begiratuta bakarrik jo daiteke garestizat aniztasunaren kudeaketa, ez baitira kontuan hartzen erabaki horrek, edozein gizarte pluralen etorkizunean, izango lituzkeen ondorio ekonomikoak.

Zer ezaugarri edo gaitasun garatu behar dituzte kultura anitzeko gizarte bateko herritarrek?

Gizarte benetan aske eta demokratiko bateko herritar oro ingurune kulturantzun eta kulturarteko batean bizi behar da. Horrek ez du esan nahi herritarrak berez kulturantzunak izan behar direnik; hori oso zaila izango da, eta, nolana ere, pertsona bakoitzaren askatasunaren arabera izango da. **Herritarrak bizikidetzaren positiboa izan behar du desberdin direnekin**. Horrek ez du behartuko bere identitatea aldatzera, ezta konplexuago bihurtzera ere. Ez da beharrezkoa guztiok kulturantzunak, eleanitzak edo erlijioari dagokionez eklektikoak izatea, baizik eta geure identitateari utsiz, identitate eta kultura desberdinak dituzten pertsonekin ahalik eta harmoniatsuen bizitzeko gai izatea. Horretarako, ez da ezagutza edo gaitasun berezirik behar, jarrera irekia eta malgua baizik; hori da, hain zuzen ere, jarrera demokratikoa.

Hiru elementu edo fase bereizten dira gizarte pluraletarako beharrezkoa den jarrerarako. Lehenengoa **deszentrazioa** da. **Hau da, norberaren identitate-tik eta kulturatik distantzia jakin bat hartzeko gaitasuna.** Gure bizitza eta besteekin harremanak izateko modua gure identitateak eta kulturak nola baldintzatzen dituzten jakin behar dugu. Deszentrazioa ez da autokritika negatibo bat, norberaren identitatea birpentsatzeko eta identitate horrek gainerako herri-tarrei nola eragiten dien edo eragin diezaiekeen jakiteko modua baizik.

Bigarren elementua **enpatia** litzateke, **hau da, desberdinak direnak ezagutzeko eta aitortzeko prestasuna.** Horrek ez du esan nahi bestearen premisak onartu behar direnik; jarrera irekia mantendu eta garatu behar da, eta entzuteko prest egon behar da; laburbilduz, bestearen tokian jarri behar da norbera. Ezinezkoa da pertsona batek kultura, hizkuntza edo erlijio asko sakon ezagutzea aldi berean. Enpatiaren helburua ez da aniztasunean adituak sortzea, baizik eta besteen desberdintasunak, onarpenak edo praktikak norberarenak diren maila berean ulertzen saiatzeko prest dauden herritarrak sortzea.

Azkenik, ezinbestekoa da **negoziazio- edo elkarrizketa-osagaia** izatea, enpatia-maila handiagoa garatzea. Kultura-aniztasuneko bizikidetzak askeak malguagoak eta moldagarriagoak egin behar gaitu; abagune- edo iritzi-aldaketak hobeto jasatera bultzatu behar gaitu, konponbideak behin betiko ontzat ez ematera, etengabe positiboki zalantzan jartzearen bitartez. Kulturarteko elkarrizketaren eta bitartekaritzaren metodologia elkarrizketa horren azken emaitza bezain garrantzitsua da hemen; izan ere, negoziazio-jarrerak berak eraikitzen du gizarte pluralagoa eta inklusiboagoa aldi berean.

